



Sagar

jotzearen ondotik, lehen estutzea, zuku dastaketa eta kupelaratzeta eginen dituzte Jo al Jo kultur taldekoek.

GIZARTEA

## XIV. Kirikoketa besta larunbatean eginen dute Arizkunen

Gamioko dolare barrokoan sagardogintza erakustaldia antolatu du Jo ala Jo elkarteak

Arizkun | 2013-10-30 | 07:29 | Testua: TTIPI-TTAPA | Argazkia: Artxiboko argazkia

Jo ala Jo kultur taldeak hamalagarren urtez antolatutako Kirikoketa Besta Arizkunen ospatuko dute azaroaren 2an. Egun osoko ekitaldiekin batera, XVIII. mendeko Gamioko dolare barrokoan sagardogintza erakustaldia ere eginen da.

Larunbat goizeko 10:30etik aitzinera eginen da sagardogintza erakustaldia. 11:40ean ibilaldia eta ate irekiera eginen dira. 11:15ean sagar jotzea, lehen estutzea, zuku dastaketa eta kupelaratzeta. Lanak akitutakoan kirikoketa jotzea eginen da. Baztango etxeetako sagardo eta zukuen lehen dastaketa eta Nafarroako Sagardoaren dastaketa eginen dira. Segidan bazkari herrikoia izanen da. Ospakizunean, herri musikariak eta dantzak, erraldoiak, taloak, artisauak, Bidasoaldeko hazien sarea, kontzertuak eta bertze hainbat ekitaldi izanen dira.

18:30ean Karrikadantza dantzatuko da. 19:00etan bigarren estutzea eta bidenabar, musika zuzenean kupelategian. 22:00etan kontzertua, Kirikoketa bestaren hamalagarren edizio hau akitzeko.

Geure buruaz | Pribatasun politika | Kontaktua

**TTIPI-TTAPA | Koskontako bidea, 07 - 1 | 31770 LESAKA (Nafarroa)**  
**Tel: 948 63 54 58 | Faxe: 948 63 54 57**  
**Diseinua: Ttipi-Ttapa | Garapena: [iametza interaktiboa](#)**

Laguntzailea:

